

txintxonga



2003ko ekaina- 5. alea

AMOROTO ESKOLAKO ALDIZKARIA

ESKOLAKO EKINTZAK

Oletako jaiak direla eta Ekainaren 9an jai izango dugu Eskolan.

GAU BAT PIRATEN ETXEAN
EKAINAREN 12 ETA 13AN PASAIAN DAGOEN PIRATEN ATERPEETXE BATERA JOANGO GARA AULESTIKO ETA AMOROTOKO ESKOLAKO LHKO GU UMEOK, AUTOBUSEZ NOSKI. BERTAKO ARGAZKI BATZUK IKUSITA DITUGU ETA ITXASONTZIAN IBILIKO GARELA ESAN DIGUTE BAINA GEHIAGO EZ, LO EGITERA BADAKIGU.

HHKOAK ONDO PASATZEN
EKAINAREN 13AN HHKO AMOROTOKO ESKOLAKO GURE LAGUNAK LEKEITIOA DOAZ BIDAIA TXIKI BAT EGITERA. LEHENBIZI PISZINARA ETA GERO HONDARTZARA BOKATA JATEKO. IZOZKIA JAN, JOLASTU ETA OSO ONDO PASATZERA.



UDAKO OPORRAK

Ekainaren 20an udako oporrak hatzen ditugu.

ESKOLAREN JAI

Ekainaren 1ean Euskal publikoaren XII. Jai izango da Donostian, Zubietako hipodromoan, Egun osoan zehar trikitilariak, gaiteroak, txistulariak, txarangak, tailerrak umeentzako parkeak.

KURTSO AMAIERAKO JAI

Ekainaren 22an Domekan Eskolan Kurtso Amaierako Jai egongo da. Herriko ludotekan izango da. Antzerkia egongo dugu, txirula jo dantza ere bai. Espero dugu hamaieketakoa edukitzea.



HERRIKO BERRIAK

Mendi irteera

Ekainaren 1ean mendi irteera egingo da, Amoroton zehar. Honen helburua, Amorotoko txoko guztiak ezagutzea da eta bide batez goizpasa ederra egitea.



Oletako jaiak

Oletako jaiak ekainaren 7, 8 eta 9an izango dira. Bertan Rock kontzertuak, trikitilariak, herri kirolak eta umeen jolasak egongo dira.

Herri irteera

Ekainaren 14an, herri eskurzioa Amorototik Portugaletera. Apuntatzeko herriko tabernan ekainaren 6a orduko. Autobusa goizeko 9etan etorriko da. La Arboledan bazkaria jan eta arratsaldea pasatzeko aukera dago.

SAN JUAN SUA

Ekainaren 23an, San Juan su eguna ospatuko da. Beti bezala, txintxongen aurrean egingo da sua, gaueko 9:30etan.

OHARRA: Ahal duzuen guztiok, (eskolakoak), etor zaitezte 5:00etan plazara, egurrak batzen laguntzeko. (berandu ba zatoze, gu hasita egongo gara). **ANIMATU ZAITEZTE!!!**

ZORIONAK

IBAN ABUZTUAK 17 -AINARA ABUZTUAK 23
LIHER ABUZTUAK 6 -MARI ASUN ABUZTUAK 12
LEIRE ABUZTUAK 24-ANTXON ABUZTUAK 11
JOSU ABUZTUAK 21-XABIER ABUZTUAK 27



I KASTURTE AN ZEHAR

